

## HONDAKINAK

# HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEA, KONPOSTAJEAREN BIDEZ

**GORBEIALDEKO KUADRILLAK ETA, ZEHAZKI, URKABUSTAIZKO UDALAK UDALERRIAN KONPOSTAJEA BULTZATZEAREN ALDE EGITEN DUTE, LEGEAK ESKATZEN DUEN EHUNEKORA IRISTEKO ETA ZERBITZUAREN KOSTUAK MERKATZEKO.**

Urkabustaizen komunitateko lau konpostaje gune daude. Plaza Berrikoan 38 pertsona daude inskribatuta, 27 urbanizazioan eta 11 alde zaharrean. Laugarrena Ikastolak erabiltzen duen gunea da. Izarra 1.137 biztanleko herria izanik, ikus daiteke konpostajeari dagokionez herritarrek parte hartzen dutela, baina 07/2022 Legeak eskatzen du %55eko gutxieneko birziklatze tasara iristea 2025. urterako. Gaur egun %40koa baino ez da; eta, beraz, biztanleen inplikazioa handiagoa izan behar da.

Kudeaketa sistema hau bultzatzeko, Urkabustaizko Udalak informazio hitzaldiak eman ditu udalerriko herri guztietan. Jundizko Bio-Konposta Plantatik jasotako txostenen arabera gainerako edukiontzien edukaren %50 baino gehiago hondakin organikoa da. Beraz, ondorioztatu da irtenbiderik onena izango litzatekeela hondakin organiko hori jatorrian kudeatzea, hau da, konpostajea egitea. Asmoa da, halaber, etorkizunearan gainerakoen edukiontzia ixtea, hondakin organikoen isurketa mugatzeko eta erabiltzaileen jarraipen digitala egiteko.

### Konpostaje guneak kontzejuetan

Beraz, helburua da gainerako errefusaren kantitate handi bat murriztea, kontzeju bakoitzean komunitateko konpostaje guneak gehituz eta hondakin errefus guztiak jatorrian bereziz.

Helburu horrekin, 2024ko azaroan saio horiek kontzeju guztietan egin dira, Inoson izan ezik, berorren hondakin bilketa Aiara-ko Kuadrillak kudeatzen baitu. Hitzaldi horien helburua izan da hondakin kudeaketari buruzko egungo errealitatea ezagutaraztea, legeak ezartzen dituen helburuak zehaztea

eta etorkizun hurbilean asmo horiek betetzeko gauzatuko den proiektua azaltzea, konpostajea (etxekoa zein komunitatekoa) sustatuz eta edukiontzi grisetarako sarbidea mugatuz.

Ekimenari harrera ona eman zaio eta hitzaldietan asistentzia positiboa izan zen: Abornikanon 8 pertsona bertaratu ziren: 5 Abezian, 8 Beluntzan, 16 Izarran, 3 Larrazkuetan, 8 Goiuri-Ondonan, 2 Lukianon, 0 Oiardon eta 10 Untza-Aprengindanan. 59 pertsona guztira.



### %50eko gastua aurreztu

Kudeaketa berriak zabor tasak nabarmen merkatzea ekarriko du; kalkuluen arabera, gutxi gorabehera %50 aurreztuko da. 394.098 kg jasotzen dira Urkabustaizen gainerakoen frakzioan. Ondorioz, sekulako gastua egiten da kudeaketan. Adibidez, Urkabustaizko bilketaren egungo gastua 347.564,76 eurokoa da, eta Udalak uste du %50 murriztu daitekeela. TMB tasari dagokionez, egungo gastua 240.293,94 eurokoa da, eta Udalak 120.146,97 eurora murriztu daitekeela uste du. Era berean, hondakinak zaborte-gian uztearen gaineko zerga 30 eurokoa da tona bakoitzeko, eta kopuru hori ere %50 murriztu daitekeela uste da. Horrek guztiak 596.607,67 euroko egungo gastua batzen du, eta 298.303,84 euro murriztu daiteke.

## ZERBITZU PUBLIKOAK

# ANBULATORIOAK URTARRILAREN 7AN IREKIKO DITU BERRIRO ATEAK

**ERABERRITZE LANAK AMAITU BERRI DIRA, INSTALAZIOAK GARBITU ETA BERREGOKITZEA FALTA DA, ETA ZERBITZUA URTARRILAREN 7AN BERRABIARAZIKO DA ANBULATORIOAN.**



luz egin zuen bezala, Udalak hobekuntza lanak egin ditu anbulatorioan. 2023an, instalazioak margotu, altzariak berritu eta leiho berriak jarri ziren, eremu komunak errazago aireztatzeko. Obra horiek, hein handi batean, Osakidetzak finantzatu zituen.

Oraingo honetan, Udalak medikuen eta erizainen espazioa handitu du, eta komunak egokitu ditu irisgarriak izan daitezen. Obren aurrekontua 35.050 eurokoa izan da. Hobekuntza obren aurrekontua 35.050 eurokoa izan da, eta Osakidetzak %80 ordainduko du.

Lanak amaitu ondoren, anbulatorioa garbitu eta egokituko da, urtarrilaren 7tik aurrera bertan zerbitzu guztiak eskaintzeko. Bitartean, astelehenetik ostiralera zerbitzu hau Udaletxeko bigarren solairuan eskaintzen da; eta asteburuetan Murgiako anbulatorioan.

# NEGULEKUAK HAUR ETA GAZTEEN AISIALDI PROGRAMA

UDALAK AISIALDIKO HAINBAT JARDUERA ANTOLATU DITU GABONETAKO OPORRETARAKO. HERRIAN BERTAN EGIN BEHARREKO TAILERRAK NABARMENTZEN DIRA, BAITA IRTEERA BATZUK ERE.



Negulekuak programaren jarduerak abenduaren 22an, igandea, hasiko dira, haurrentzako tailerrekin, Gabonetako Merkaturuan, 12:00etatik 14:00etara. Ondoren, abenduaren 24an, 18:30ean, harrera egingo zaie Olentzero eta Mari Domingiri alde zaharreko elizan. Tailerrekin jarraituz, abenduaren 26an mahai jokoen tailerra antolatu da Lehen Hezkuntzako ikasleentzat KZgunean; eta antzerkiaren tailerra Haur Hezkuntzakoentzat kultur etxean, 11:00etatik 13:00etara. Ondoren, 18:30etan, Among Us antolatu da Lehen Hezkuntzako ikasleentzat kultura etxean. Ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea.

27an irteera egingo da izotz pista, 09:30etik 14:00etara, eta hitzordua Ikastolako aparkalekuan izango da. Haurren matrikula 12 eurokoa da eta helduena 14 eurokoa. Eskularruak eta hamarretakoa eraman beharko dira.

## ENPLEGUA

### BI PEOI LANEAN HASIKO DIRA

Abenduaren 30etik aurrera, bi pertsona hasiko dira lanean Udaletxean, sei hilabetez %75eko jardunean peoi zeregiarekin.

Eta 31n 11:00etatik 13:00etara, Lehen Hezkuntzako hainbat kirol tailer izango dira frontoian, eta Lehen Hezkuntzako Gabonetako eskularrak kultur etxean. Gainera, minidiskoa izango da bolatokian 18:30ean.

### Urtarrilean ere bai

Urtarrilean ere jarduerak izango dira. Horrela, urtarrilaren 2an, adin guztientzako sukaldaritza ikastaroa egingo da 11:00etatik 13:00etara. Eta arratsaldean publiko guztia-entzat film bat proiektatuko da. Azkenik, urtarrilaren 3an, irteera bat egingo da Barakaldoko UGPra, 9 euroko kostua izango duena.

Ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea eta herrian programatutako jardueretarako (irteerak kenduta, noski) 10 euroko ordainketa bakarria egin beharko da. Prozedura honako hau da: QR bidez izena eman, eta ES10 2095 3224 2410 9002 6278 kontu korrontean sartu.



# GABONETAKO AZOKA, PINTXO LEHIAKETA ETA BESTELAKO JARDUERAK



Igande honetan, abenduaren 22an, Gabonetako Merkaturua antolatu da eta, gainera, Urkabustaizko Pintxo Lehiaketa egingo da lehen aldiz. Horrez gain, beste hainbat kultura jarduerak izango dira egunotan.

Gabonetako Azokaren baitan, elikagaien eta artisauen erakusketa eta salmenta eskaintza polita izango da. Gainera, aurtur Urkabustaizko I. Pintxo Lehiaketa ere egingo da, eta aldeaz aurretik izena eman duten herritarrek osatuko dute epaimahaia. Eguneko egitaraua sari banaketarekin, magia ikuskizunekin, haurrentzako tailerrekin eta zuzeneko musikarekin osatuko da.

Gainerakoan, abenduaren 21ean, Gorka konpainiaren 'Kelsonia' antzezlanak izango da ikusgai antzokian, 19:00etan; abenduaren 23an, mugimendua eta artea lantzeko 'Plastikokow' tailerrean parte hartu ahal izango da; abenduaren 27an, Gurutze Beitiaren 'Yo y mis circunstancias' bakarriketa, 20:00etan antzokian; eta abenduaren 28an, 19:00etan, leku berean antolatu den Aerrimatu bertso saioa. Urteko programazioa abenduaren 31n, Turroi Egunean, amaituko da, 10:00etan mendi irteera egingo da Estuñagara eta 18:30ean mozerro lasterketa.

# Felisa Martin Bravo

Donostia, 1898-1979



Felisa Donostian jaio zen eta Estatuko fisikako lehenengo doktorea izan zen. Ikasketak egiten ari zela, Ikasketak Zabaltzeko Batzordeko (JAE) Eskola Institutuko Zientzia Departamentuan eskolak ematen aritu zen, institutuko irakasle titulua lortzeko asmoz. 24 urterekin, Fisikan lizentziatu zen, eta, ondoren, ikerketaren munduan sartu zen. Ikerketa Fisikoen Laborategian hasi zen lanean, eta laborategiko lehen emakumea izan zen. Felisa sare kristalinoen azterketan espezializatu zen X izpien aparatuekin, eta gai horri buruz egin zuen tesiaren bidez, Fisikako doktore titulua lortu zuen lehen emakumea izan zen.

Ondoren, oposizioak prestatu zituen Estatuko Meteorologia Zerbitzuan sartzeko. 1929an meteorologia-zerbitzuan hasi zen lanean, laguntzaile gisa, eta bertara sartu zen lehen emakumea izan zen, eta bakarra 1935era arte. Gerra Zibilean, Igeldoko behatokiko "ustekabeko zuzendari" izendatu zuten donostiarra, Armadak ez baitzuen hura zuzentzeko langile kualifikaturik. "Ustekabeko" izendatu zuten, baldintza normaletan Felisa ez baitzen horrelako lanpostu baterako hautagaia izango, eta egoerak horretara bultzatu zituen. Felisak behatokia zuzendu zuen 1940ko ekainera arte.

Felisa nació en Donostia y es la primera doctora en física del Estado. Mientras cursaba sus estudios, trabajó dando clases en el Departamento de Ciencias del Instituto Escuela perteneciente a la Junta de Ampliación de Estudios (JAE), con la intención de conseguir el título de profesora de instituto. Con 24 años, se licenció en Física y posteriormente se adentró en el mundo de la investigación. Comenzó a trabajar en Laboratorio de Investigaciones Físicas, siendo la primera mujer del Laboratorio. Felisa se especializó en el estudio de redes cristalinas con aparatos de rayos X y mediante la tesis que realizó en esta materia se convirtió en la primera mujer en obtener el título de doctora en Física.

Posteriormente, preparó las oposiciones para acceder al Servicio Estatal de Meteorología. En 1929 comenzó su labor en el servicio de meteorología como ayudante, siendo la primera mujer en acceder al mismo, y la única hasta 1935. Durante la Guerra Civil designaron a la donostiarra «directora accidental» del observatorio de Igeldo, ya que el Ejército no contaba con personal cualificado para dirigirlo. Fue nombrada «Accidental» ya que, en condiciones normales, Felisa no hubiera sido candidata a un puesto semejante y se vieron abocados a ello por las circunstancias. Felisa dirigió el observatorio hasta junio de 1940.